# Erabiltzaileen eskuliburua *Hirugarrenen Erregistro Telematikoa* aplikazioa erabiltzeko

**Data: 2014ko martxoaren 17a**

***EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO***

Ekonomia eta Ogasun Saila

Donostia-San Sebastián kalea, 1

01010 VITORIA-GASTEIZ

Tel.: 945 01 89 91

Faxa: 945 01 90 20

www.euskadi.net

# Edukia

## Aurkibidea

Orrialdea

1 Hitzaurrea 3
2 Aplikaziorako sarbidea 4
3 Pantaila guztietako aukerak 7
3.1 Pantailaren goiko aldea 7
3.2 “Nire datuak inprimatu” aukera 7
4 Bankuko datuak ikustea eta/edo aldatzea 9
4.1 “Nire datuak aldatu” botoia 9
4.2 “Nire datuak berretsi” botoia 11
*4.2.1. Datuen formatua zuzena da eta nahitaezko eremuak bete dira 11*
*4.2.2. Datuen formatua EZ da zuzena edo nahitaezko eremuak EZ dira bete 13*
5 Bankuko datuei alta ematea 14

# 1 Hitzaurrea

Dokumentu honetan "Hirugarrenen Erregistro Telematikoa" aplikazioari buruzko erabiltzaileen eskuliburua garatu da, funtzionamendua eta erabilerari buruzko alderdi garrantzitsuenak zehaztuz.

Erabiltzaileek EAEko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen ordainketak kudeatzeko bankuko datuei alta eman edo datuok ikusi edo aldatzeko jarraitu beharko duten prozesua azaldu da hemen.

# 2 Aplikaziorako sarbidea

EAEko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen ordainketak kudeatzeko bankuko datuei alta eman edo datuok ikusi edo aldatzeko aukera ematen duen “Hirugarrenen Erregistro Telematikoa” aplikaziora sartzeko, honakoa egin beharko du erabiltzaileak: ziurtapen-txartela sartu txartel-irakurgailuan, www.euskadi.net atarira konektatu eta:

1.- Menu honetan sartu:

Eusko Jaurlaritza

Ogasuna eta Finantzak

Ezkerreko aldean “Hirugarrenen Erregistro Telematikoa” irudia dago

2.- URL honen bitartez ere hel daiteke bertara: http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/eu/contenidos/informacion/regtelter_infor/eu_rtt/infor_rtt.html




**GARRANTZITSUA**: “Ziurtagiri digitalarekin sartu” botoia sakatu BAINO LEHEN sartu behar da ziurtapen-txartela txartel-irakurgailuan. Bestela agian ez du txartela behar bezala detektatuko.



“Ziurtagiri digitalarekin sartu” botoia sakatu ostean, erabilitako ziurtagiriaren arabera, pantaila ezberdinak agertuko dira. Izenpe txartelekin, esaterako, pantaila hau agertuko da:




Sakatu “Jarraitu” botoia. Ondoren, ziurtagiri motaren arabera, irakurgailuan sartutako txartelari dagokion ziurtagiria aukeratzeko pantaila ager daiteke. Hona hemen:




Aurreko pantailan “Onartu” sakatuz, txartelaren PINa sartzeko pantaila agertuko da. Txartel motaren arabera, hurrengo pantailaren formatua ezberdina izango da. Nolanahi ere, gako bat sartzeko pantaila agertuko da. Herritarren txarteletarako edo Izenpe txarteletarako, adibidez, pantaila hau agertuko da:




Onartu sakatu ostean, ordainketak kudeatzeko beharrezko datuei alta eman edo datuok ikusi eta aldatzeko aukera emango duen pantaila agertuko da.



# 3 Pantaila guztietako aukerak

Atal honetan pantaila guztietan azaltzen diren aukerak zehaztu dira, esaterako pantailaren goiko aldeko informazioa eta “Nire datuak inprimatu” aukera.

## 3.1 Pantailaren goiko aldea




Hasiera botoian sakatuz gero, Ekonomia eta Ogasun Sailaren orri nagusira joango da.

Halaber, “eu” edo “es” sakatuz gero aukera egongo da hizkuntza aldatzeko, gaztelaniatik euskarara eta alderantziz.

Erabiltzaileak aplikaziotik irten nahi badu, “**Deskonektatu**” sakatu beharko du, eta behar bezala deskonektatu dela dioen orrialdea agertuko da.




## 3.2 “Nire datuak inprimatu” aukera

Erabiltzaileak edozein momentutan inprima dezake PDF fitxategi batean pantailako informazio guztia. Horretarako pantailaren beheko aldean dagoen “Nire datuak inprimatu” botoia salatu beharko da.

PDF fitxategi bat eskuratuko da:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

## HIRUGARRENEN ERREGISTROA

Ordainketak kudeatzeko datuak

**ERREGISTROAREN INFORMAZIOA**

- Honako datu hauek ditu EAEko Administrazioaren eta bere Erakunde Autonomoen ordainketak kudeatzeko hirugarrenen erregistroak.

**DATU PERTSONALAK**

| NAN / AIZ / IFK | Abizenak eta izena / Sozietatearen izena |
|---|---|
| ZZZZZZZZL | ABIZENAK IZENA |

**HARREMANETARAKO DATUAK**

| Helbidea | Posta-kod. |
|---|---|
| DIRECCION DE PRUEBA | 48001 |

| Herria | Probintzia | Herrialdea (atzerrian bada bakarrik) |
|---|---|---|
| POBLACION DE PRUEBA | Bizkaia | |

| Helbide elektronikoa | Mugikorra |
|---|---|
| email.prueba@aaa.es | 999000001 |

| Helbide elektronikoa berrestea | Mugikorra berres. |
|---|---|
| | |

OHARRA: Helbide elektronikoari edo mugikorrari buruzko eremuak bankuko datuak aldatzeko edo alta emateko izapideetan gorabeherarik egonez gero jakinarazpenak egin ahal izateko beteko dira.

**BANKUKO DATUAK**

OHARRA: Bankuko kontuaren titularra pertsona fisiko edo juridiko interesduna bera izan beharko da. Administrazioak egiaztatu egingo du bankuko datuak egiazkoak diren.

Iban

| ES10 | 2095 | 0001 | ZZZZ | ZZZZ | ZZZZ |
|---|---|---|---|---|---|

Datu Pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan jasotakoa betetzeko, Ogasun eta Finantza Sailak adierazi nahi dizu aplikazio honetan idatzi dituzun datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, izapideak egin ahal izateko.

Nahi izanez gero, datuak ikusi, zuzendu, baliogabetu eta aurkaratzeko eskubideak erabili ahal izango dituzu, Legeak aurreikusten duenez, Ogasun eta Finantza Saileko Zerbitzu Zuzendaritzan: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. / registroterceros@ej-gv.es

Finantza-erakundearen konformaziozko Erreferentzia Osoko Zenbakia: 20950000000000XXXXXXXXXXX

Inprimatze-data: 2014/03/14

Aplikazio honetatik bankuko daturen bat aldatu edo daturen bati alta emanez gero, finantza-erakundeak datuok baliozkotuko ditu, eta “**Konformaziozko Erreferentzia Osoko Zenbakia**” itzuliko du. Finantza-erakundeak datuok baliozkotu ondoren erabiltzaileak EZ badu beste aldaketarik egiten bankuko datuetan, finantza-erakundearen konformaziozko erreferentzia osoko zenbakia ere azalduko da datuak inprimatzean. Erabiltzaileak bankuko datuak aldatu baditu baina oraindik ez badira baliozkotu, EZ da inolako konformaziozko erreferentzia osoko zenbakirik agertuko.

# 4 Bankuko datuak ikustea eta/edo aldatzea

EAEko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen ordainketak kudeatzeko bankuko datuen erregistroak konektatutako erabiltzailearen konturen bateko datuak baditu, datu horiek azalduko zaizkio erabiltzaileari.

Hona hemen administrazioak konektatutako erabiltzailearentzako bankuko daturen bat duenean azaltzen dena:




## 4.1 "Nire datuak aldatu" botoia

Hasieran pantailako datu guztiak daude desgaituta. Daturen bat aldatu nahi izanez gero, "**Nire datuak aldatu**" botoia sakatu behar da, eta orduan gaituko dira datuak, aldatu ahal izateko.




## ERREGISTROAREN INFORMAZIOA

Lauki honetan kontuaren erregistroa zein egoeratan dagoen dioten mezuak azalduko dira. Aldatutako datuetan akatsen bat ikusiz gero, atal honetan ere adieraziko da.

## DATU PERTSONALAK

Datu pertsonalak EZIN dira aldatu, erabiltzailea erabiltzen dabilen ziurtapen-txarteletik hartzen baitira.

## HARREMANETARAKO DATUAK

Harremanetarako datuetan, “Probintzia” eremua automatikoki kalkulatzen da posta-kodea oinarri hartuta. “Herrialdea (atzerrian bada bakarrik” eremuak Espainia ez den herrialderen bat adierazten du, probintziaren eremua hutsik geratuko da.

“Helbide elektronikoa” edo “Mugikorra” eremua idatzi edo aldatzean, berretsi ere egin beharko da dagokion eremuan. “Helbide elektronikoa” eta “Helbide elektronikoa berrestea” eremuetako balioak berdin-berdinak izan beharko dira, baita “Mugikorra” eta “Mugikorra berrestea” eremuetako balioak ere.

## BANKUKO DATUAK

Bankuko Datuen atalean 6 eremu agertuko dira. Eremu bakoitzak 4 posizio ditu. IBANaren 24 posizioak bete behar dira. **GARRANTZITSUA**: Kontua baliozkotzeko sistema honi atxikita dauden finantza-erakundeen bankuko datuak bakarrik aldatu ahal izango dira.

## 4.2 “Nire datuak berretsi” botoia

Hirugarrenak aldatu nahi zituen datuak aldatutakoan, “**Nire datuak berretsi**” botoia sakatu beharko du, eta orduan egiaztatuko da pantailan idatzitako datuek formatu egokia duten eta nahitaezko datu guztiak sartu diren.

### 4.2.1. Datuen formatua zuzena da eta nahitaezko eremuak bete dira

Datuen formatua zuzena bada eta nahitaezko eremu guztiak bete badira, bankuko datuak egiazkoak diren egiaztatuko da. Prozesu horrek segundo batzuk behar izango ditu:




Bankuko datuak egiaztatu ostean, ERREGISTROAREN INFORMAZIOA atalean adieraziko zaio emaitza hirugarrenari. Bankuko datuak zuzenak badira eta **<u>hirugarrena kontuaren titularra bada</u>**, “Datuak behar bezala erregistratu dira” mezua azalduko da.



HIRUGARRENEN ERREGISTROA

Ordainketak kudeatzeko datuak

Nire datuak aldatu

ERREGISTROAREN INFORMAZIOA

- Datuak behar bezala erregistratu dira.

DATU PERTSONALAK

NAN/AIZ: ZZZZZZZZL

Abizenak eta izena: ABIZENAK IZENA

HARREMANETARAKO DATUAK

Helbidea*: DIRECCIÓN DE PRUEBA

Posta-kod.*: 48001

Herria*: POBLACIÓN DE PRUEBA

Probintzia: Bizkaia

Herrialdea (atzerrian bada bakarrik): - - -

Helbide elektronikoa: email.prueba@aaa.es

Mugikorra: 999000001

Helbide elektronikoa berrestea

Mugikorra berrestea

OHARRA: Helbide elektronikoari edo mugikorrari buruzko eremuak bankuko datuak aldatzeko edo alta emateko izapideetan gorabeherarik egonez gero jakinarazpenak egin ahal izateko beteko dira.

BANKUKO DATUAK

OHARRA: Bankuko kontuaren titularra pertsona fisiko edo juridiko interesduna bera izan beharko da. Administrazioak egiaztatu egingo du bankuko datuak egiazkoak diren.

IBAN*: ES10 2095 0001 ZZZZ ZZZZ ZZZZ

Atxikituriko finantza-erakundeak: Kutxabank - Bankoa - Banco Santander - Laboral Kutxa - CaixaBank - BBVA

*Nahitaezko eremuak

Datu Pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan jasotakoa betetzeko, Ogasun eta Finantza Sailak adierazi nahi dizu aplikazio honetan idatzi dituzun datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, izapideak egin ahal izateko.

**Hirugarrena ez bada kontuaren titularra**, "Bankuko datuak EZ dira zuzenak" mezua azalduko da.



HIRUGARRENEN ERREGISTROA

Ordainketak kudeatzeko datuak

Nire datuak aldatu

ERREGISTROAREN INFORMAZIOA

- Bankuko datuak EZ dira zuzenak.

DATU PERTSONALAK

NAN/AIZ: ZZZZZZZZL

Abizenak eta izena: ABIZENAK IZENA

HARREMANETARAKO DATUAK

Helbidea*: DIRECCIÓN DE PRUEBA

Posta-kod.*: 48001

Herria*: POBLACIÓN DE PRUEBA

Probintzia: Bizkaia

Herrialdea (atzerrian bada bakarrik): - - -

Helbide elektronikoa: email.prueba@aaa.es

Mugikorra: 999000001

Helbide elektronikoa berrestea

Mugikorra berrestea

OHARRA: Helbide elektronikoari edo mugikorrari buruzko eremuak bankuko datuak aldatzeko edo alta emateko izapideetan gorabeherarik egonez gero jakinarazpenak egin ahal izateko beteko dira.

BANKUKO DATUAK

OHARRA: Bankuko kontuaren titularra pertsona fisiko edo juridiko interesduna bera izan beharko da. Administrazioak egiaztatu egingo du bankuko datuak egiazkoak diren.

IBAN*: ES10 2095 0001 ZZZZ ZZZZ ZZZZ

Atxikituriko finantza-erakundeak: Kutxabank - Bankoa - Banco Santander - Laboral Kutxa - CaixaBank - BBVA

*Nahitaezko eremuak

Datu Pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan jasotakoa betetzeko, Ogasun eta Finantza Sailak adierazi nahi dizu aplikazio honetan idatzi dituzun datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, izapideak egin ahal izateko.

### 4.2.2. Datuen formatua EZ da zuzena edo nahitaezko eremuak EZ dira bete

“Nire datuak berretsi” botoia sakatzean idatzitako datuen formatua EZ bada zuzena edo nahitaezko eremu guztiak bete EZ badira, antzemandako akatsak adieraziko dira ERREGISTROAREN INFORMAZIOA atalean. Gainera KONTUA EZ DA BALIOZKOTU EZ GORDEKO HIRUGARRENAK AKATSAK ZUZENDU ETA BERRIRO “Nire datuak berretsi” BOTOIA SAKATU ARTE.



Ogasun eta Finantza Saila

Hasiera | eu | es | Hemen zaude: Hasiera / Hirugarrenak

Kontaktua | Laguntza

Deskonektatu

**HIRUGARRENEN ERREGISTROA**

**Ordainketak kudeatzeko datuak**

Nire datuak aldatu

**ERREGISTROAREN INFORMAZIOA**

- Zure datuak EZIN IZAN DIRA aldatu, daturen bat ez delako zuzena.

Ez duzu gauza bera idatzi helbide elektronikoaren eremuan eta hori berresteko eremuan.
Helbidearen eremua nahitaezkoa da.
Posta-kodearen eremua nahitaezkoa da.
Ez da probintzia aurkitu. Egiaztatu posta-kodea zuzena den.

**DATU PERTSONALAK**

| NAN/AIZ | Abizenak eta izena |
| --- | --- |
| ZZZZZZZZL | ABIZENAK IZENA |

**HARREMANETARAKO DATUAK**

Helbidea* | Posta-kod.*

Herria*: POBLACIÓN DE PRUEBA | Probintzia | Herrialdea (atzerrian bada bakarrik): - - -

Helbide elektronikoa: email.prueba@aaa.es | Mugikorra: 999000001

Helbide elektronikoa berrestea: email.prueba2222@aaa.es | Mugikorra berrestea

OHARRA: Helbide elektronikoari edo mugikorrari buruzko eremuak bankuko datuak aldatzeko edo alta emateko izapideetan gorabeherarik egonez gero jakinarazpenak egin ahal izateko beteko dira.

**BANKUKO DATUAK**

OHARRA: Bankuko kontuaren titularra pertsona fisiko edo juridiko interesduna bera izan beharko da. Administrazioak egiaztatu egingo du bankuko datuak egiazkoak diren.

IBAN*: ES10 2095 0001 ZZZZ ZZZZ ZZZZ

Atxikituriko finantza-erakundeak: Kutxabank - Bankoa - Banco Santander - Laboral Kutxa - CaixaBank - BBVA

*Nahitaezko eremuak

Eta IBANaren datu guztiak betetzen ez badira, hurrengo mezua agertuko da:



**BANKUKO DATUAK**

OHARRA: Bankuko kontuaren titularra pertsona fisiko edo juridiko interesduna bera izan beharko da. Administrazioak egiaztatu egingo du bankuko datuak egiazkoak diren.

IBAN*: ES10 2095 0001 ZZZZ ZZZZ IBANaren 24 posizioak sartzea nahitaezkoa da.

Atxikituriko finantza-erakundeak: Kutxabank - Bankoa - Banco Santander - Laboral Kutxa - CaixaBank - BBVA

# 5 Bankuko datuei alta ematea

EAEko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen ordainketak kudeatzeko hirugarrenen erregistroak EZ badauka konektatutako erabiltzailearentzako daturik, datuoi alta emateko pantaila bat agertuko da.




Beteta agertuko diren datu bakarrak, EZIN izango direla aldatu, Datu Pertsonalak izango dira, erabiltzailea erabiltzen dabilen ziurtagiri digitaletik hartzen baitira. Gainerako datuak betetzeko, bankuko datuak aldatzeko eman diren azalpenei jarraitu beharko zaie.